BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ERMUKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA *BIZIPARK - ERMUA* BIZIKLETENTZAKO APARKALEKU SEGURUAREN ZERBITZUA KUDEATZEKO

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA PARA LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE APARCAMIENTO SEGURO PARA BICICLETAS *BIZIPARK - ERMUA.*

Ermuan, 2022ko ………..(a)ren ……(e)(a)n

En Ermua, a….. de …………. de 2022.

BILDU DIRA

SE REÚNEN

Alde batetik, Miguel Ángel Gómez Viar jn., Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saileko diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz.

De una parte, D. Miguel Angel Gómez Viar, Diputado del Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral deBizkaia.

Eta, bestetik, Juan Carlos Abascal Candás jn., Ermuko alkatea, Ermuko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz.

Y, de otra parte, D. Juan Carlos Abascal Candás, Alcalde de Ermua, actuando en nombre y representación del ayuntamiento de Ermua.

ESKU HARTZEN DUTE

INTERVIENEN

Lehenengoak, aipatutako karguagatik, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz, egintza honetarako eskumena izan du aldez aurretik, Foru Gobernu Kontseiluak 2022. urteko 14ko ekainean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

El primero, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, previamente facultado para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día 14 de junio de 2022.

Bigarrenak, halaber, aipatutako karguagatik, Ermuko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, egintza honetarako eskumena izan du aldez aurretik, ……….. hartutako erabakiaren bidez.

El segundo, también por razón de su expresado cargo, en nombre y representación del ayuntamiento de Ermua, previamente facultado para este acto por acuerdo adoptado por ……..

Bi alderdiek, esku hartzen dutenez, hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes, según intervienen, se reconocen entre sí la capacidad jurídica necesaria para la suscripción del presente Convenio y a tal efecto.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoak, 10. artikuluan ezartzen duenez, errepideko garraio mekanikoen arloko legegintza, arauen bidezko garapena, goi-ikuskaritza, plangintza eta koordinazioa autonomia erkidegoko erakunde erkideei dagozkie. Lurralde historikoek, beren mugartean, eta indarrean dauden Estatuarekiko itunen arabera, Arabak orain dituen ahalmenak eurak eta nolako berdinez erabiliko dituzte.

II.- Bizkaiko Foru Aldundiak foru eskumenak bere gain hartzeaz gain, araubide erkideko aldundiek garatzen dituzten eskumenak ere bere gain hartzen ditu, eta horien eginkizun nagusien artean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluaren arabera, honako oinarrizko hauek daude Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoek bakoitzari dagokion lurralde-eremuan aplikatze aldera: prestazio osoa eta egokia bermatzeko udal-zerbitzuak elkarren artean koordinatzea, udalaz gaindiko eta, bidezkoa bada, eskualdeaz gaindiko zerbitzu publikoak ematea eta udalerrietako zerbitzuak bateratuta eman daitezen sustatu eta, hala badagokio, koordinatzea.

III.- Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluak xedatu duenaren arabera, udalek auzo-komunitatearen

EXPONEN

I.- La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, preceptúa en su artículo 10 que corresponden a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de legislación, desarrollo normativo, alta inspección, planificación y coordinación en materia de transportes mecánicos por carretera ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado.

II.- La Diputación de Bizkaia además de asumir las competencias forales asume las competencias que desarrollan las Diputaciones de régimen común, entre cuyo cometido principal y de conformidad con el artículo 36 dedicado a regular las competencias de la Provincia de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, de carácter básico y aplicable a los Territorios Históricos de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba/Álava, se encuentra tanto la coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de la prestación integral y adecuada, como la prestación de servicios públicos de carácter supramunicipal y, en su caso, supracomarcal, y el fomento o, en su caso, coordinación de la prestación unificada de servicios de los municipios de su respectivo ámbito territorial.

III.- Por su parte los municipios, por aplicación de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la cual establece en su artículo 25 las competencias de carácter

beharrak eta nahiak betetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzakete, betiere euren eskumenen esparruan, eta horien artean sartzen dira "Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna, eta hiriko garraio kolektiboa".

municipal, dispone que estos pueden promover actividades y prestar los servicios públicos que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal, siempre en el ámbito de sus competencias, entre las que se incluyen como propias "Tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, y Transporte colectivo urbano".

IV.- Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak III. tituluko III. kapituluan mugikortasun jasangarria arautzen du, eta administrazioei agintzen die, euren eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriko politikak sustatzeko. Politika horiek garraio zerbitzu berriak ezartzeko printzipioa errespetatu behar dute, eta, horretarako, inbertsio-kostuekin eta mantentze-kostuekin bat datorren eskaera-bolumena izan behar dute. Edozelan ere, kontuan hartu behar dira, batetik, behar bezalako kalitatea, prezioa, segurtasuna duten aukerako moduak eta, bestetik, ingurumen-ebaluazioaren emaitzak.

Arau beraren 100. artikuluak mugikortasun jasangarriko politikaren helburuak ezartzen ditu, eta helburu hauek izan beharko ditu:

1. Hiri-ingurumena eta herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzen laguntzea, bai eta ekonomiaren eraginkortasuna ere, natura-baliabideen erabilera arrazionalagoari esker.

2. Hiri-garapeneko, garapen ekonomikoko eta mugikortasuneko politikak integratzea, ohiko joan-etorriak minimizatzeko moduan, eta oinarrizko zerbitzuetarako irisgarritasun eraginkorra, efizientea eta segurua erraztea, betiere ingurumen-inpaktu txikienarekin.

IV.- La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible reserva el Capítulo III del Título III a la movilidad sostenible, estableciendo un mandato a las Administraciones, en el ámbito de sus competencias, para la promoción de políticas de movilidad sostenible, que respeten principios como el del establecimiento de nuevos servicios de transporte, supeditado a la existencia de un volumen de demanda acorde con los costes de inversión y mantenimiento, teniendo en cuenta, en todo caso, la existencia de modos alternativos de la debida calidad, precio, seguridad, así como los resultados de su evaluación ambiental.

El artículo 100 de la misma norma establece los objetivos de la política de movilidad sostenible, que deberá perseguir:

1. Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.

2. Integrar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo impacto ambiental.

3. Energia-kontsumoaren murrizketa eta energia-eraginkortasunaren hobekuntza sustatzea. Horretarako, eskaria kudeatzeko politikak hartuko dira kontuan.

4. Gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta energiaren aldetik kostu txikiena duten garraiobideak sustatzea, bai pertsonentzat, bai salgaientzat, eta garraio publiko kolektiboaren eta motorizatu gabeko beste garraiobide batzuen erabilera sustatzea.

5. Garraiobideen modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, ibilgailu pribatuarekiko bestelako garraiobideak eta sareak kontuan hartuta.

V.- Bi erakundeen lehentasunezko helburuen artean dago bizikletaren erabilera sustatzea ohiko joan-etorrietarako, eta, horretarako, lurraldean erabilera hori bultzatzen lagunduko duten azpiegiturak eraikitzea.

VI.- Era berean, bi erakundeak bat datoz bizikletaren eta beste garraiobide batzuen arteko intermodalitatea bultzatzeko helburuan, batez ere zerbitzu publikoek eskaintzen dituztenak.

VII.- Mugikortasun jasangarriaren arloko helburu komunak lortze aldera, erakundeen arteko lankidetza da herritarrei zerbitzua modu arin eta zehatzean emateko tresnarik egokiena.

VIII.- Esparru horretan, Bizkaian bizikletak segurtasunez aparkatzeko esperientzia pilotu bat abian jartzea erabaki dute.

3. Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.

4. Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los trasportes público y colectivo y otros modos no motorizados.

5. Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.

V.- Que ambas instituciones tienen entre sus objetivos prioritarios el fomento del uso de la bicicleta para desplazamientos habituales y para ello dotar al territorio de infraestructuras que contribuyan a favorecer dicho uso.

VI.- Que del mismo modo ambas instituciones coinciden en el objetivo de favorecer la intermodalidad entre la bicicleta y otros modos de transporte, preferentemente los que ofrecen los servicios públicos.

VII.- Que, para lograr los objetivos comunes en materia de movilidad sostenible, la colaboración interinstitucional es la herramienta más adecuada de dar servicio a la ciudadanía de una manera ágil y concreta.

VIII.- Que en este marco acuerdan poner en servicio una experiencia piloto en Bizkaia de aparcamiento seguro para bicicletas.

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ermuko Udalak

ERABAKI DUTE

BiziPark-Ermua bizikletentzako aparkaleku seguruaren zerbitzua kudeatzeko hitzarmen hau sinatzea, honako hauen arabera:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA. - XEDEA

Hitzarmen honen xedea da:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ermuko Udalaren artean zehaztea bizikletentzako aparkaleku seguruko ekipamendua martxan jartzeko baldintzak Ermuan, aurrerantzean BiziPark - Ermua.

BIGARRENA. - ALDERDIEN KONPROMISOAK

1.- Ermuko Udalak Valdespinako aparkaleku publikoko -1 solairuan dauden bi aparkaleku egokitzeko eta ekipatzeko lanak egiteko baimena emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak, Ermuko Udalarekin koordinatuta eta harekin adostuta, zehaztu, gauzatu eta finantzatuko ditu udalak berak zerbitzuaren esku jarritako lurzatien egokitzapen- eta ekipamendu-lanak.

Bizkaiko Foru Aldundiak 39.385,26 €-ko ekarpen ekonomikoa egin du lan horiek egiteko. Horretarako, ondorengo partidan gaitutako kreditua dago: 0605 zentro kudeatzailea, 441122

Por ello, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ermua

ACUERDAN

Suscribir el presente Convenio para la gestión del servicio de aparcamiento seguro para bicicletas BiziPark-Emua, todo ello conforme a las siguientes:

ESTIPULACIONES

PRIMERA. - OBJETO

El presente convenio tiene por objeto:

1.- Definir entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ermua los términos de la puesta en servicio del equipamiento de aparcamiento seguro para bicicletas en Ermua, en adelante *BiziPark - Ermua*.

SEGUNDA.- COMPROMISOS DE LAS PARTES

1.- El ayuntamiento de Ermua facilita el acceso y autorizará a la Diputación Foral de Bizkaia a realizar los trabajos de acondicionamiento y equipamiento de dos parcelas de aparcamiento situadas en la planta -1 del parking público de Valdespina.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia, en coordinación y de acuerdo con el ayuntamiento de Ermua, definirá, ejecutará y financiará los trabajos de acondicionamiento y equipamiento de las parcelas puestas a disposición del servicio por el propio ayuntamiento.

La aportación económica por parte de la Diputación Foral de Bizkaia para la ejecución de los trabajos mencionados es de 39.385,26 €. Para

programa, 69101 programa ekonomikoa, 2019/0102 proiektua.

ello, existe crédito habilitado en la siguiente partida: centro gestor 0605, programa 441122, económico 69101, proyecto 2019/0102.

3.- Behin *BiziPark - Ermua*ren erabilera- eta funtzionamendu-araubidea adostuta, udalak bere gain hartuko du hura kudeatzea eta mantentzea, gutxienez hitzarmen honen indarraldian. Martxan jartzeko aurreikusitako data ekaina da.

Kudeaketa eta mantenimendurako Ermuko Udalak egiten duen ekarpen ekonomikoa 4.925,12 €-koa da urtean, 4590/212.00 aurrekontu-partidaren kargura.

3.- Una vez acordado el régimen de uso y funcionamiento del *BiziPark - Ermua*, el Ayuntamiento asumirá la gestión y mantenimiento del mismo durante, al menos, el plazo de vigencia del presente Convenio. La fecha prevista para el inicio de la puesta en funcionamiento. es junio de 2022

La aportación económica por parte del Ayuntamiento de Ermua para la gestión y mantenimiento es de 4.925,12 € anuales, con cargo a la partida presupuestaria 4590/212.00.

4.- Ermuko Udalak bere gain hartuko du Bizipark - Ermuaren kudeaketa ekonomikoa bere osotasunean, Bizkaiko Foru Aldundiak erabilera modalitateei, erabileragatiko kanonari edo beste edozein alderdiri buruz ezarritako jarraibideei jarraituz, hitzarmen honi erantsitako Valdespinako Markesaren aparkalekuan bizikletentzako aparkaleku seguruaren zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak izeneko agirian jasotakoak.

4.- La gestión económica del Bizipark – Ermua será asumida en su totalidad por el Ayuntamiento de Ermua siguiendo las directrices marcadas por la Diputación Foral de Bizkaia, en materia de modalidades de uso, canon por la utilización, o cualquier otro aspecto, recogidas en el documento anexo al presente Convenio titulado Condiciones de acceso y uso del servicio de aparcamiento seguro para bicicletas en el parking Marqués de Valdespina.

5.- Erabilera, informazioa edo *Bizipark - Ermua*rekin zerikusia duen beste edozein motatako sustapen-kanpaina publiko orotarako, lehentasunez erakutsi beharko dira Ermuko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoak.

5.- Toda campaña pública de promoción del uso, información o de cualquier otro tipo relacionada con el *Bizipark – Ermua* deberá mostrar en lugar preferente los logotipos tanto del Ayuntamiento de Ermua como de la Diputación Foral de Bizkaia.

## HIRUGARRENA. - HITZARMENA ALDATZEA

1.- Hitzarmen hau aldatzeko, bi alderdiek ados jarri beharko dute eta dagokion espedientea

## TERCERA. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO

1.- La modificación del presente convenio requerirá el acuerdo de ambas partes y la previa

izapidetu.

tramitación del correspondiente expediente.

2.- Espediente horretan, nahitaez, txosten tekniko justifikatzaile bat egin beharko da, aldaketaren beharra eta egokitasuna aztertzeko eta 40/2015 Legean edo hura ordezten duen arauan aurreikusitakoa betetzeko.

2.- En el mencionado expediente, necesariamente deberá emitirse un informe técnico justificativo en el que se analice la necesitad y oportunidad de la modificación y el cumplimiento de lo previsto en la Ley 40/2015 o norma que la sustituya.

3.- Eragindako administrazio bakoitzeko organo eskudunek onartzen dutenean amaituko da aldaketa-prozedura.

3.- El procedimiento de modificación finalizará con su aprobación por los órganos competentes de cada una de las Administraciones concernidas.

LAUGARRENA. - INDARREAN SARTZEA ETA IRAUPENA

CUARTA. - ENTRADA EN VIGOR Y DURACIÓN

1.- Hitzarmen honek LAU URTEKO iraupena izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

1.- El presente convenio tendrá una duración de CUATRO AÑOS años a contar desde el día de su firma.

2.- Hitzarmena automatikoki 4 urtez luzatuko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) 2 artikuluaren arabera, salbu eta alderdietako edozeinek hitzarmena salatzen badu.

2.- Se acuerda la prórroga automática del Convenio por un periodo de 4 años, tal y como se contempla en el art. 49.h) 2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, salvo que medie denuncia del Convenio por cualquiera de las partes.

BOSTGARRENA. - HITZARMENA SUNTSIARAZTEA

QUINTA. - RESOLUCIÓN DEL CONVENIO

1.- Hitzarmen hau suntsiarazten denean iraungiko da.

1.-El presente Convenio se extinguirá con su resolución.

2.- Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

a) Indarraldiaren gehieneko epea igarotzea.

b) Bi alderdiek aho batez hartutako erabakia.

c) Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez

2.- Son causas de resolución:

a) El transcurso del plazo máximo de su vigencia.

b) El acuerdo unánime de las dos partes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las

betetzea.

**d)** Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

3.- Hitzarmena suntsiarazten bada, alderdiek beren konpromisoak bete beharko dituzte suntsiarazpena adierazten den egunera arte.

partes.

**d)** Cualquier otra causa prevista en las leyes.

3.-En caso de resolución del convenio, las partes quedan obligadas al cumplimiento de sus respectivos compromisos hasta la fecha en que aquélla se declare.

SEIGARRENA.- EZ-BETETZEAREN ONDORIOAK

Zerbitzua ematen ez hastea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, eta aurkeztutako zenbateko guztiak edo zati proportzionala itzultzeko eskatu ahal izango da, Bizkaiko Foru Aldundiak likidazioa egin eta onartu ondoren.

SEXTA.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTO

La no iniciación de la prestación del servicio será causa de resolución del Convenio, pudiéndose reclamar el reintegro de las cantidades aportadas, bien en su totalidad, bien en la parte proporcional, previa liquidación realizada y aprobada por la DFB.

ZAZPIGARRENA.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen araudian jasotako irisgarritasuna sustatzeko neurriak hartzeko, bereziki, oztopo arkitektonikoak kentzeari, garraioko irisgarritasunari eta komunikazio-sistemetako irisgarritasunari dagokienez.

SÉPTIMA.- PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

Las partes firmantes se comprometen, a adoptar las medidas de promoción de la accesibilidad contempladas en la normativa en vigor, especialmente, en lo relativo a la eliminación de barreras arquitectónicas, accesibilidad en el transporte y accesibilidad en los sistemas de comunicación.

ZORTZIGARRENA.- JARRAITU, ZAINDU ETA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK

Hitzarmenaren funtzionamenduaren jarraipena egiteko, batzorde tekniko bat eratuko da, alde bakoitzeko ordezkari banak osatua, eta aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da.

OCTAVA.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL

Con el fin de realizar un seguimiento del funcionamiento del convenio se constituye una comisión técnica integrada por una persona representante de cada una de las partes que se reunirá a instancia de cualquiera de ellas.

BEDERATZIGARRENA. - EZTABAIDAK ETA JURISDIKZIO EREMUA

1.- Alderdiek ebatziko dituzte hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaida guztiak.

2.- Alderdietako batek uste badu besteak ez dituela bere betebeharrak bete, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan demandatu ahal izango du bestea. Errekurtsoa jarri aurretik, alderdi batek besteari eskatuko dio 15 eguneko epean bete ditzala bere ustez bete ez dituen betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan oraindik ez badira bete, alderdi eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du zuzenean. Errekurtso horretan, alderdi demandatzaileak hitzarmena betetzea edo suntsiaraztea eskatu ahal izango du, eta, osagarri gisa, eragindako kalteengatiko kalte-ordaina.

NOVENA. -CONTROVERSIAS Y ÁMBITO JURISIDICCIONAL

1.- Las controversias que pudieran surgir sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del presente Convenio serán dirimidas entre las partes.

2.- En el caso de que una de las partes considere que la otra ha incumplido las obligaciones que le incumben, podrá demandar a la otra ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Con carácter previo al recurso, cualquiera de las partes requerirá a la otra para que en el plazo de 15 días cumpla con las obligaciones o compromisos que considere incumplidos. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte requirente podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo. En dicho recurso, la parte demandante podrá pretender el cumplimiento del convenio o su resolución y, complementariamente, una indemnización por los daños causados.

HAMARGARRENA. - IZAERA JURIDIKOA

1.- Hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluko VI. kapituluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da haren araubide juridikoa.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmen hau lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, eta bertan eta 40/2015 Legean jasotako hizpaketak izango ditu arau.

DÉCIMA. - NATURALEZA JURÍDICA

1.- Este convenio tiene naturaleza administrativa y su régimen jurídico vendrá determinado por lo establecido en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

2.- Conforme a lo dispuesto en el Art. 6.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, por el que se aprueba la Ley de Contratos del Sector Público, el presente Convenio queda fuera del ámbito de aplicación de dicha Ley, rigiéndose por las estipulaciones contenidas en el mismo y en la citada Ley 40/2015.

HAMAIKAGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Sinatzaileek honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; bestetik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; azkenik, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Eta, ezarritakoarekin bat etorriz, bertaratuek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

ERMUKO UDALAren izenean/ Por el AYUNTAMIENTO DE ERMUA

Sin/Fdo.: Juan Carlos Abascal Candás jn. / D. Juan Carlos Abascal Candás,

Ermuko alkatea / Alcalde de Ermua

UNDÉCIMA.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como en el resto de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Y, de conformidad con lo establecido, firman las personas comparecientes el presente documento, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-aren izenean/ Por la DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

Sin/Fdo.: D. Miguel Angel Gómez Viar

Diputado foral del Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible

# VALDESPINAKO MARKESAREN APARKALEKUAN BIZIKLETAK SEGURTASUNEZ APARKATZEKO ZERBITZUA ERABILTZEKO ETA SARTZEKO BALDINTZAK
# CONDICIONES DE ACCESO Y USO DEL SERVICIO DE APARCAMIENTO SEGURO PARA BICICLETAS EN EL PARKING MARQUÉS DE VALDESPINA

AURREKARIAK

Bizikleta-GP (garraio publikoa) intermodalitatea hiri-mugikortasun jasangarria sustatzeko politika guztien funtsezko osagaia da. Izan ere, garraio publikoko geltokien ekintza-erradioa handitu egiten du, ehunka metrotik 3 edo 4 km-ra bitartean, eta geltoki horiek iristen ez diren tokietara iristeko aukera ematen du. Gainera, zaila da garraio publikoko sistema eraginkorra eta, aldi berean, ingurumenaren, finantzen edo beste edozein ikuspuntutatik iraunkorra diseinatzea.

Bizikleta eta garraio publikoa uztartuta erabiltzeko tradizio luzea duten herrialdeetan, konbinazio horretarako azpiegituren eskaintza zabala egon ohi da, eta azpiegitura berrien eskaria berez azaleratzen da, ia beti nahiko modu kaotikoan apartutako bizikletak izanik, hain zuzen ere garraio publikoko geralekuen eta geltokien inguruetan. Egoera horietan, plangintza nahiko erraza izaten da: nahikoa da geltoki nagusien inguruan zer gertatzen den behatzea eta behar den azpiegitura eskaintzea edozein modutan gertatzen dena ordenatzeko. Bizikletaren eguneroko erabileran tradizio urria duten herrialdeetan, gure kasuan bezala, ordea, bizikleta-GP intermodalitatearen eskari potentzialak jarduera edo esku hartzeko plan espezifikoak behar ditu.

Esperientziak erakusten digunez, eskaera hori azaleratzeko ez da nahikoa geltokien kanpoaldean bizikleta-aparkaleku batzuk jartzea, baizik eta azpiegitura horien erabilera sustatu behar da nolabait, eta, gainera, erabiltzaile potentzialentzat modu egoki eta erakargarrian diseinatu behar dira. Hortaz, instalazioa nolabaiteko zorroztasunez eta zentzuz planifikatu behar da, bai diseinuari eta geltokian

ANTECEDENTES

La intermodalidad bicicleta-TP (Transporte público) es una parte esencial de cualquier política de fomento de la movilidad urbana sostenible, al permitir aumentar el radio de acción de las estaciones del transporte público de unos centenares de metros hasta 3 ó 4 Km. aproximadamente, permitiendo llegar allí donde éste no llega, en zonas dónde es difícil diseñar un sistema de transporte público eficaz y, a la vez, sostenible desde cualquier punto de vista, tanto medioambiental como financiero o cualquier otro.

En los países con una larga tradición de uso combinado de la bicicleta y el transporte público suele haber una amplia oferta de infraestructuras para dicha combinación y la demanda de nuevas infraestructuras aflora de modo espontáneo, casi siempre en forma de bicicletas aparcadas de un modo bastante caótico en los entornos de las paradas y estaciones del transporte público. En estas condiciones, la planificación suele ser bastante sencilla: basta con observar lo que sucede en torno a las principales estaciones y ofrecer la infraestructura necesaria para ordenar lo que de todas formas ocurre de un modo desordenado. En los países con escasa tradición de uso cotidiano de la bicicleta, como es nuestro caso, en cambio, la demanda potencial de intermodalidad bicicleta-TP necesita para aflorar actuaciones o planes de intervención específicos.

La experiencia nos muestra que para hacer aflorar dicha demanda no basta con colocar algunos aparca bicis en el exterior de las estaciones, sino que es necesario incentivar de algún modo el uso de dichas infraestructuras, que deben además diseñarse de un modo adecuado y atractivo para los/as potenciales usuarios/as. Su instalación debe, por tanto,

bertan kokatzeari dagokionez, bai dimentsioei eta edukierari dagokienez.

planificarse con cierto rigor y sentido, tanto en lo que respecta a su diseño y ubicación en la propia estación, como en lo que respecta a sus dimensiones y capacidad.

Ermuko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, bizikleta-garraio publikoaren intermodalitateari heltzeko esperientzia pilotu bat egin nahi du, ebaluatu ondoren, bizikleta-aparkalekuaren erabilerari buruzko datuak lortzeko, hala badagokio, bizikletetarako aparkaleku berriak sortuz esperientzia zabaltzeko. Esperientziaren iraupena, gutxi gorabehera, 18 hilabetekoa izango da, eta epe hori igaro ondoren erabakiko dira zerbitzua ematen jarraitzeko baldintzak.

El Ayuntamientode Ermua, en colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia, pretende realizar una experiencia piloto para abordar la intermodalidad bicicleta-transporte público que, una vez evaluada, permita obtener datos de uso de un aparcamiento de bicicletas para, en su caso, hacer extensiva la experiencia con la creación de nuevos aparcamientos para bicicletas. La duración estimada de la experiencia es de 18 meses, periodo tras el cual se decidirán las condiciones para la continuidad del servicio.

XEDEA

Ermuko Valdespinako markesaren aparkalekuan bizikletentzako aparkaleku seguruko zerbitzuaren eskaerak, esleipenak, altak, bajak eta erabilera arautzeko arau orokorra. Zerbitzu horren helburua mugikortasun intermodala da.

OBJETO

La regulación general de las condiciones de acceso, de las solicitudes, adjudicaciones, altas, bajas y uso del Servicio de Aparcamiento Seguro para Bicicletas en el Parking Marqués de Valdespina de Ermua cuyo objetivo es la movilidad intermodal.

ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA MODALITATEAK

Ermuko Udala da bizikletak aparkatzeko zerbitzuaren kudeatzailea, eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako kudeaketarako plataformaren bidez kudeatuko da.

ORGANIZACIÓN, FUNCIONAMIENTO Y MODALIDADES DEL SERVICIO

El gestor del servicio de aparcamiento de bicicletas es el Ayuntamiento de Ermua y se gestionará a través de la plataforma de gestión facilitada por la Diputación Foral de Bizkaia.

ERABILTZAILEAK

Kudeaketarako aplikazioaren bidez erregistratzen den 16 urteko edo gehiagoko edozein pertsona.

18 urtetik beherakoek tutorearen bidez erregistratuta egon beharko dute.

Erabiltzeko baldintzak onartu beharko dituzte, eta telefono mugikorraren zenbaki bat, helbide elektroniko bat eta bizi diren udalerria eman beharko dituzte. Ermuan zein udalerritik kanpo bizi direnak izan daitezke.

Eskaeran, bizikleta aparkatzeko sistema hori erabiltzeko interesaren arrazoia adieraziko dute.

Zerbitzuan jartzeko, aldez aurretik izena emateko epe bat ezarriko da. Baliozko izen-emateen kopurua BiziPark-en edukiera (26 plaza) baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Zozketan BiziPark erabiltzeko baimenik lortu ez dutenek itxaron-zerrenda bat osatuko dute zozketa horren ondoriozko ordenan.

PERSONAS USUARIAS

Cualquier persona de 16 años o más que se registre a través de la aplicación de gestión.

Personas menores de 18 años deberán estar registradas a través de su tutor/a.

Deberán aceptar las condiciones de uso, facilitar un número de teléfono móvil, una dirección de correo electrónico municipio de residencia. Pueden ser tanto residentes en Ermua como de fuera del municipio.

En su solicitud, indicarán la razón del interés en el uso de este sistema de aparcamiento de bicicleta.

Para la puesta en servicio se establecerá un período de inscripción previo. Si el número de inscripciones válidas fuera superior a la capacidad del BiziPark (26 plazas), se realizará un sorteo. Las personas que no hayan obtenido autorización para el uso del BiziPark en el sorteo, pasarán a integrar una lista de espera en el orden resultante de dicho sorteo.

ORDUTEGIA

Eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

Udalak, arrazoiak emanez, zerbitzua erabiltzeko ordutegia eta aparkalekuak irekitzeko denbora aldatu ahal izango ditu, eta aldez aurretik abisatu beharko du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Aldaketa horren berri eman beharko zaie erabiltzaileei Bizkaiko Foru Aldundiak emandako kudeaketarako plataformaren "Nire oharrak" atalaren bidez.

HORARIO

Las 24 horas del día los 365 días del año.

El Ayuntamiento podrá modificar motivadamente el horario de utilización del servicio y el tiempo de apertura de los aparcamientos debiendo dar previo aviso, salvo causas de fuerza mayor.

La citada modificación se deberá comunicar a las personas usuarias a través del apartado Mis Avisos de la plataforma de gestión facilitada por la Diputación Foral de Bizkaia.

BONUAK ETA TARIFAK

Honelako epealdiotakoak izan daitezke bonuak:

Hilabetekoa: 4 €

BONOS Y TARIFAS

Los bonos podrán ser por periodos de,

1 mes: 4 €

3 hilabetekoa: 10 €

6 hilabetekoa: 20 €

Urtebetekoa: 40 €

Bonoen iraupena ez dator bat eskuratu diren hilabete naturalarekin, eta ordaintzeko betebeharra eskatzaileari eskaera baliozkotu dela jakinarazten zaion unean sortzen da.

Eskatzaileak, erabiltzaile bihurtzen denean, abonuaren baliozkotasunaren azken 5 egunetan mezu bat jasoko du kontratatutako aldiaren amaieraren berri emateko, eta ordainketa berritzeko aukera izango du eskaera-prozeduraren bidez, eta lehentasuna izango du ordainketaren baliozkotasunaren azken 5 egunetan.

Berritu ezean, zerbitzua berriro erabili ahal izateko, eskaera bat egin beharko du prozedurari jarraituz.

Bonua erosteko prozesua amaitzeak baldintzak onartzea eta BiziPark zerbitzuan alta ematea dakar berekin.

Baimendutako erabiltzaileak bizikleten aparkaleku bakarra erabili ahal izango du, eta haren ardura izango da gailuaren elementuak bere bitartekoekin ziurtatzea. Gainera, 8 kutxa gotor tenporizatu izango dituzte eskura, segurtasun-itxiturarekin eta bateriak kargatzeko konexio elektrikoarekin. Armairuak gehienez 12 orduz erabili ahal izango dituzte jarraian.

BiziParketik kanpo BiziPuntu libre bat izango dute, konponketa txikietarako erremintaz eta zutabe berean integratutako puzte-kitez hornitua.

Bonua erosteak ez du eskubiderik emango erabiltzaile bakoitzarentzat instalazioaren barruan plaza jakin bat erreserbatzeko. Ezin izango da instalatutako plazak (26) baino bizikleta gehiago egon.

3 meses: 10 €

6 meses: 20 €

1 año: 40 €

Los bonos podrán tener una duración no coincidente con el mes natural de su adquisición, la obligación del pago nace en el momento en que se comunique a la persona solicitante la validación de su solicitud.

La persona solicitante, una vez que pasa a ser usuaria, en los últimos 5 días de validez de su abono recibirá un mensaje avisando del final del periodo contratado, teniendo opción de renovar su abono a través del procedimiento de solicitud, teniendo preferencia durante los 5 últimos días de validez de su abono.

En caso de no renovación, para poder volver a utilizar el servicio deberá hacer una solicitud siguiendo el procedimiento.

El hecho de finalizar el proceso de compra del bono comporta la aceptación de las condiciones y el alta en el servicio BiziPark.

La persona usuaria autorizada podrá utilizar una sola plaza de aparca bici, y será su responsabilidad asegurar los elementos al dispositivo con sus propios medios. Además tendrán a su disposición 8 cajas fuertes temporizadas dotadas con cierre de seguridad y conexión eléctrica para carga de baterías, taquillas que podrán utilizar durante periodos máximos de 12 horas seguidas.

En el exterior del BiziPark dispondrán de un BiziPunto de uso libre, equipado con herramienta para pequeñas reparaciones, y kit de inflado integrado en la misma columna.

La compra del bono no dará derecho a la reserva de una plaza concreta para cada persona usuaria dentro de la instalación. No podrá haber más bicicletas que plazas instaladas (26).

BONUAK ORDAINTZEA ETA SARBIDE-EGIAZTAPENA KUDEATZEA

Baliozkotu ondoren, izena emandako pertsonak webean sartzeko kredentziala izango du, eta une horretatik kudeatu ahal izango ditu bai ordainketak bai bonu berrien aurreinskripzioa.

Ordainketa Udalak aurreikusitako plataformaren bidez egingo da.

PAGO DE BONOS Y GESTIÓN DE ACREDITACIÓN DE ACCESO

